



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2022ko AZAROAREN 23an EGINIKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2022ko azaroaren 23an, eguerdiko 20.05etan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATE ANDREA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon AYERZA SARASUA (Asteasu Batuz, AB)
Larraitz ALKORTA AIZPURUA (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar ITURBE URDANGARIN (Asteasu Batuz, AB)
Unai OTEGUI IRAZUSTA (Asteasu Batuz, AB)
Joseba GOMEZ SARASUA (EAJ/PNV).

Ezin direla etorri aurretik adierazi dute: Joseba TXAPARTEGI NIEVE (Asteasu Batuz, AB), Aitor USANDIZAGA IZAGIRRE (Asteasu Batuz, AB), Luke URIBE-ETXEBARRIA APALATEGUI (EAJ/PNV)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERRENDA:

- 1. 2021eko Udaleko Aurrekontu Orokorreko Kontu Orokorra: onespena.**
- 2. Jende aurrean jartzea Asteasuko Udala Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko proposamena eta UEMAren estatutuak onartzeko proposamena: onestea**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

2021eko Udaleko Aurrekontu Orokorreko Kontu Orokorra: onespena.

Idazkariak hitza hartu du.

Azaroaren 28ko Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubidearen Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan jasotakoarekin bat, Udalbatzarrak proposamena gai-zerrendan txertatzea berretsi behar du.

Alkate andreak hitza hartu du.

Gai-zerrendan jaso den proposamena luzatu dio Udalbatzarrari, aurretik Informazio Batzorden aztertu eta iriztu ez dena. Espedientea jende aurrean jarri zen, Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazioa Informazio Batzordeak iriztu ondoren, eta ez dira alegaziorik aurkeztu. Hortaz, eta ikusirik hilabete honetan eta abenduan udaleko lanpostuen egonkortasunak ekarriko digun lan-zamak, ez ohiko udal osora ekarri da gaia zuzenean eta presazko izaeraz, beste batzorde batek idazkaritzan sortzen duen lan-zama ekiditzearren.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Iturbe, Otegui, Gómez).

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, Udalbatzarrak proposamena gai-zerrendan txertatzea berretsi du.

Honela dio:

2021ko Aurrekontu Orokorren Kontu Orokorra

Ikusirik 2021. ekitaldiko kontu orokorra prestatua dagoela, besteak beste ondorengo osagaiak izango dituelarik:

- Egoera balantzea
- Galera eta irabazien kontua
- Ekitaldiaren txostena
- Aurrekontuaren likidazio egoera
- Urteko egoera-orrien eranskinak



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Erakunde lokaletako aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63. Artikuluak dionaren arabera, jendaurrean jarri beharko da Kontu orokorra hamabost laneguneko epean interesatuek galdapenak, erreparoa eta iradokizunak aurkez ditzaten. Ondoren Udal Batzarrera eramango delarik bere onespenerako.

Ikusirik mahai gainean dauden Kontu Orokorrak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko azaroaren 16ko 95/93 Foru Dekretuak, Udal Entitateen Kontabilitate Instrukzio erraztuak onesten duenarekin bat datozela.

Ikusirik Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio batzordeak aldeko txostena eman zuela.

Ikusirik iragarkia 2022/10/26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela.

Ikusirik jende aurreko epean ez direla erreklamazioak, erreparoa edo oharrak aurkeztu.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Iturbe, Otegui, Gómez).

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

LEHENA: 2021. urteko Kontu Orokorra onartzea.

BIGARRENA: 2021eko aurrekontuaren Kontu Orokorra Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari bidaltzea, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

BIGARREN PUNTUA

Jende aurrean jartzea Asteasu Udalbatza Udalbarri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko proposamena eta UEMAren estatutuak onartzeko proposamena: onestea

I. Kultura, Kirola, Euskara eta Ekitaldiak Informazio Batzordeak, 2022ko irailaren 28an eginiko bilkuran, irizpen hau eman du:

“1.- UEMA entitatearen Estatutuak Udalbatzarrak onartzea.

2.- Asteasuko Udala, Ueman sartzeko alde egitea, eta hori Udalbatzarri proposatzea”.

II. Udalerrri euskaldunen mankomunitatea izaera soziolinguistiko antzekoak dituzten udalek osatutako erakunde publiko bat da, xede nagusi batekin: udalerrri euskaldunei eta arnaguneei hizkuntzaren berreskurapen prozesuan daukaten garrantzia aitortzea, eta prozesu horretan paper hori joka dezaten behar dituzten hizkuntza politikak aurrera eramanez ahal izateko bitartekoak lortzea/jartzea.

Beraz, bere zeregin nagusia politikoa eta teknikoa da.

Udal euskara zerbitzu baten edo eskualde mailako mankomunitate bateko euskara zerbitzu baten helburua, aldiz, gune horretako hizkuntza plangintza diseinatu eta aurrera eramatea da, udalek zehaztutako politiken arabera.

UEMAk eta ez beste inork 30 urte daramatza udalerrri euskaldun eta arnaguneen garrantzia aldarrikatzen. Gaur gaurkoz bere sorreran inork pentsatuko ez lukeen bezala, gizarte eragile eta instituzioen onarpena izatera iristeraino. UEMAn lorpenetako bat izan da gaur gaurkoz hego Euskal Herriko instituzio eta euskalgintzako eragile guzti guztiek beraien plan estrategikoetan berariaz arnagune eta udalerrri euskaldunak aipatzea. Hori udal bateko euskara zerbitzu batek, ez zerbitzuak emateko sortu den mankomunitate batek ez luke lortuko, bere kabuz.

Horrez gain egoera soziolinguistiko horretan dauden udalerrrien behategi papera jokatzen du UEMAk. Une oro, gizaritari horren berri eman, eta gertatzen ari denaren kontziente, errealitate horietarako egokituak diren egitasmoak diseinatzen ditu, egoera horretako udalerrrien errealitatean zentratuz. Udalerrri horiek ez baitute beste udalerrri batzuek behar duten hizkuntza politika berdinean behar, ez eta beste udalerrri batzuek behar dituzten egitasmo eta diskurtsorik ere. Bereziak dira, eta berezitasun hori ematen dio UEMAk bertako kide diren udalei, eta praktikan, kide diren udaletako euskara zerbitzu horiei. Altsasuk eta Lesakak ez baitute hizkuntza normalkuntza prozesu berbera behar.

UEMA osatzen duten udalengatik ez balitz, gaur gaurkoz ez litzateke arnagune eta udalerrri euskaldunetan ez hizkuntza politikan ez egitasmoetan berariazko ezberdintasunik egingo, eta hori akats larri izango litzateke. UEMAk egindako azterketa, hausnarketa eta gizarteratzeari esker, gaur egungo errealitatea da udalerrrietan eragiten duten plan eta proiektuek hizkuntzarengan duten eragina neurtzeko tresna. EAEn lege garapena izan duena, eta Nafarroa legean txertatu ez bada ere, Euskarabidearen aitortza jaso duena; UEMArri esker ez balitz, udalerrri euskaldunetako herritarrak ahalduzko premiak ez leudeke hain argi eta abar eta abar eta abar.

UEMAk urteetan izandako esperientziaz eta egindako lanaz gune soziolinguistiko horretako errealitatearen ezagutza ezin hobea du, eta une oro ezagutza horretan sakontzen jarraitzen du.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gainera, gunehorietako beharrak identifikatuta izanik, 87 udalek batuta ematen duten indarrarekin behar horietan dagokionari dagokion ardurak eskatu eta lorpenak izateko udalak bere kasa dutena baino dezente indar handiago egiten du UEMAK.

III. UEMAK bere kide diren udalei udalerritako euskaldunetarako berariaz prestatuko egitasmoak eskaintzen dizkie. Lehenik, udalaren funtzionamendurako erabilera plana diseinatu du, hizkuntza normalkuntzan instituzioen lidertzan sinisten duelako, eta eredu izan behar dutela uste dutelako. Eta bigarrenik, euskaldun mantentzeko eta euskaraz bizitzeko oztopoak gainditzeko egitasmoak lantzen ditu.

Bai erabilera plana eta bai lantzen dituen egitasmo guztiak ere, ez dute balio edozein udalerritarako, berariaz ezaugarri soziolinguistiko batzuk dituzten udalerritarako prestatuak dira.

Gaur gaurkoz, udalei zuzenean eskaintzen dizkien zerbitzu nagusiak UEMAREN zerbitzuen katalogoan jasota daude:

<https://www.uma.eus/wp-content/uploads/2020/01/zerbitzuen-katalogoa-2020.pdf>

Baina horiez gain, urtean zehar UEMAK egiten dituen hitzarmenei esker edota udal bateko esperientzia bat zabaltzeko hautuari esker, esaterako, bi hilabetez herritarrek etxean Berria doan jasotzeko aukera; EHUrekin egindako hitzarmenari esker, udalean ikasleak praktiketan jasotzeko aukera, e.a.

IV. Udalerritako Euskaldun Mankomunitatearen (UEMAREN) estatutuek hau xedatzen dute, besteak beste:

HELBURUEZ ETA BETEBEHARREZ

4. artikulua

1. UEMAREN helburu orokorra da euskara zerbitzua eskaintzea bertako partaide diren udal administrazioen barne jardura zein udalerritako gizarte bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera ahalbidertzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

Euskara zerbitzuak udalerritako erabilera planak diseinatu eta udal langileak trebatu ditu.

2. UEMAKO udalerritako kultur ekitaldiak eta jaialdiak antolatzeko kultur zirkuitua jarriko du martxan. Horretarako, kultur zerbitzua antolatuko du mankomunitateak.

3. UEMAKO udalen garapen sozio-ekonomikoa bultzatzeko aholkularitza zerbitzua eratuko du mankomunitateak.

4. UEMAKO udalerritako merkatarien zerbitzua hobetzeko zerbitzu tekniko antolatuko du mankomunitateak.

5. *Etorकिन integrazioa ahalbideratzeko planak diseinatuko ditu mankomunitateak eta horretarako zerbitzua antolatuko du.*

6. *Gainontzeko helburu eta zerbitzuei dagokionez, legeriak mankomunitateei ematen dizkien eskubide eta eskumen jabe izango da.*

7. *Bertako partaide diren udalen ahaleginek emaitza maila gorena izan dezaten, UEMAK hauen ekintzak koordinatu eta beharrezko den laguntza teknikoa eskainiko die.*

BESTE UDAL BATZUEN ELKARTERATZEA ETA KANPORATZEA

23. artikulua

UEMATik kanpo dagoen udalerrri bat onartzeko, beharrezkoa izango da:

1. *Azken udal eroldaren arabera, bere biztanlegoaren %70etik gora euskalduna izatea.*

2. *Udal eta udalerrri mailan euskaraz bizitzeko konpromisoa.*

3. *Sartu nahi duen Udalbatza osoaren baiezko erabakia, Mankomunitatearen Estatutuak onartuz, bertako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz, eta hilabeteko informazio epea pasa ondoren.*

4. *Udal berria sartzearen aldeko erabakia hartu behar du UEMAK Batzar Nagusiko kideen botoen kopuruaren gehiengo osoz.*

Udal berriaren hasierako diru sarrera teknikoki ezarriko du Zuzendaritza batzordeak, UEMAKo ondasun eta zerbitzu kostuen arabera.

24. artikulua

UEMATik kanpora bere borondatez ateratzeko baldintza hauek bete beharko dituzte udalek.

1. *Dagokion udalbatzak gehiengo osoz ateratzea erabaki ondoren, gutxienez hiru hilabeteko aurrerapenaz egingo du eskaera.*

2. *Bere diru ordainketa eginik izan beharko du.*

3. *UEMATik ateratzeak sortzen dituen gastuak ordaindu beharko ditu, eta baita UEMAK lituzkeen zorretatik legokiokeen zatia.*

V. 2022 urte hasieran, Asteasuko udalerrian Kultura, Kirola eta Euskara arloan aldi-baterako programa bat martxan jartzeko beharra ikusi zuen Udal honek, besteak beste, Euskara arloaren berrantolaketa azter ahal izateko.

Zehazki, Asteasuko udalerrriak Euskara arloan dituen beharrak identifikatu, horien azterketa bat egin eta behar horiek asetzeko beharrezkoa den strategiaren definizioa egitea izan da egiteko nagusia. Horren ondorioz, otsailaren 21eko 2022/040 Alkatetza Dekretuaren bidez, Asteasu Udalerriko Kultura, Kirola eta Euskara Arloa berrantolatzeko programa onartu zen.

2022ko irailean, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) ordezkariak Asteasuko Udalari proposamena egin diote mankomunitateari atxikitu dadin. Aintzat hartu beharra dago, 2022ko uztailean Asteasuko Udalak Tolosaldeko Euskararen Mahaiko (TEM) eratze akta sinatu zuela, bertako kide bihurtuz eta bertan adostutako irizpideen arabera antolatuz aurrerantzean euskararen normalizaziorako udal politikak.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Irizpide horien arabera, UEMAK eta Galtzaundiren lan ildoak eta lan-jardunak bateratzen ziren, euskararen normalizazio politikak sustatzeko eta Tolosaldeako Udalei bidelaguntza eskaintzeko lanak antolatuz.

Aintzat hartuz Asteasuk une honetan ez duela euskararen normalizazioa sustatu dezakeen euskara zerbitzu propiorik, erabat egokia da UEMAK hitzarmen honen bidez eskaintzen digun normalizaziorako aholkularitza zerbitzua baliatzea eta hortaz, mankomunitatearekin bat egitea.

VI. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluan jasotakoaren arabera, Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena. Eskumen hori egikaritu ahal izateko, udal bakoitzak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta euskararen erabilera normalizatzeko beharrezkoak diren planak onetsi eta garatuko ditu, kontuan izanik instituzio komunitatik eta indarrean dagoen legeriatik euskararen erabilerari dagokionez eratorritako planifikazio eta erregulazio-irizpideak.

Era berean, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratoritzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

Udalerriek euskararen erabileraren eremuan aitortuak dituzten eskumenak baliatu ahal izango dituzte ordenantzak, erregelamenduak eta jarduera-planak onartuz.

Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; **mankomunitate**, partzuergo, elkarte eta **udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute**, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin.

Toki-erakundeek beren arteko harremanetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazio publikoekiko harremanetan euskara gero eta gehiago erabil dadin sustatuko dute.

Hala, aipatu 2/2016 Legearen 17.1.26) artikuluan jasotakoaren arabera, lege horretan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material honetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: ***“Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera”***.

Bestalde, horren 93. Artikuluak hau xedatzen du:

93. artikulua.– Tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa.

1.– Tokiko zerbitzu publikoen araubide juridikoa eta kudeaketa-erak toki-erakundeak berak ezarriko ditu, araugintzarako eta autoantolaketarako ahalak baliatuz, horrek ezertan eragotzi gabe oinarritzko legerian, lege honetan edo Eusko Legebiltzarraren beste edozeinetan eta lurralde historikoek onartzen dituzten foru-arauetan aurreikusitakoa.

2.– Tokiko zerbitzu publiko guztiak, ahal dela, toki-erakundeek emango dituzte, baina askatasuna izango dute zerbitzu horiek emateko modua erabakitzeke.

3.– Toki-erakundeek berek ezinezkoa badute zerbitzuak ematea (dela bideragarritasun-arrazoiengatik, dela efizientzia- eta eraginkortasun-arrazoiengatik), ahal dela, toki-erakunde horiek partaide dituen beste toki-erakunde batek emango ditu (adibidez, kuadrillak edo mankomunitateak).

101. artikulua.– Bitarteko erakundeak sortu, aldatu eta ezabatzea.

1.– Udalerriek elkarte-oinarridun bitarteko erakundeak sortu, aldatu edo ezabatu ahal izango dituzte, udal-zerbitzu publikoak batera edo modu partekatuan eman ahal izateko.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutako bitarteko erakundearen arau-esparrua izango da toki-araubidearen oinarritzko legerian, kasuan kasuko foru-arauetan edo, hala dagokionean, lege honetan aurreikusitakoa.

3.– Era berean, lurralde historikoetako foru-organoek aukera izango dute, beren lurraldearen barruan, hainbat udalerrri hartuko dituzten udalerrria baino eremu handiagoko erakundeak sortu, aldatu eta ezabatzeko, toki-araubidearen oinarritzko legerian, kasuan kasuko foru-araudian edo, hala dagokionean, lege honetan aurreikusitakoaren arabera.

102. artikulua.– Elkarte-oinarridun tokiko erakundeak.

1.– Udal-elkarteak eta toki-erakundearen bestelako elkarte-motak eratu ahal izango dira, kudeaketa partekatua egiteko baliabide egoki gisa, kasu hauetan: lege honen 17. artikuluan aurreikusten diren eremu materialetatik eratorritako obrak egiteko eta zerbitzu publikoak eskaintzeko, udalek edozein kasutan eskaini beharra daukaten zerbitzuak emateko, eta azken zerbitzu horiei dagokienez ukitutako udalak zerbitzuaren kostu efektiboetan edo kalitate-estandarretan hobekuntza dakarren soluzio instituzional bat eman behar duenean, betiere lege honetan ezartzen denarekin eta dagokion foru-arautegian zehazten denarekin bat etorritik.

2.– Lurralde historiko bakar batekoak diren udal-mankomunitateak eta toki-erakundearen bestelako elkarte-motek jarraibide-arau izango dituzte toki-araubidearen oinarritzko legeria eta dagokien lurralde historikoko foru-organoen legeria, ahaztu gabe, hala ere, lege honetan aplikatzekoak zaizkien xedapenak.

103. artikulua.– Lurralde historiko eta autonomia-erkidegoko batekoak baino gehiagotakoak diren udalerrien mankomunitateak.

1.– Lurralde historiko bat baino gehiagotakoak diren udalen mankomunitateak jarraibide-arau izango dituzte artikulua hau eta aplikatzekoak dituzten lege honetako beste xedapenak.

2.– Mankomunitateak eratzeko eta beraien estatutuak egjin eta onartzeko prozedura honako hau izango da:



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

- a) Estatutuen aurreproiektua egitea, beraien legezotasuna, egokitasuna eta egokiera frogatzen duten azterlan, txosten eta gainerako aurrekariekin. Aurreproiektu hori batzorde tekniko batek prestatuko du, zeina eginkizun horretarako izendatuko baitute udalen osoko bilkurek eta zeina osatuko baitute mankomunitateko udal sustatzaile guztietako zinegotziek. Udal horietako baten esku utziko da prozedura kudeatzeko eskumena, eta hark denen izenean izapidetuko du eta jatorrizko dokumentuak zainduko ditu.
- b) Estatutu-proiektua onestea, udal sustatzaile guztietako alkateek eta zinegotziek osatutako batzar batean. Batzar horren funtzionamendua udal sustatzaileen osoko bilkurek erabakitakoa izango da, eta, halakorik ezean, organo kolegiatuak erregulatzeko oinarritzko arauetan ezarritakoa.
- c) Estatutu-proiektua jendaurrean jartzea hogeitaz egunez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ipinitako iragarkiaren bitartez. Iragarki hori prozeduraren kudeatzaile den udalak bidaliko du eta hartan jaso beharko da udal sustatzaileetako bakoitzak estatutu-proiektu hori onesteko erabakia hartzearen ziurtagiria.
- d) Dagokien foru-aldundien txostena.
- e) Mankomunitatearen eraketa eta estatutuak behin betiko onartzea udal interesdun guztien osoko bilkurek, kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoz.
- f) Udal kudeatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari bidaltzea udalek hartutako erabakiak eta estatutuen testua, administrazio horrek agindu dezan Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko. Argitalpenak izaera eratzailera edukiko du, eta egintza horrek eragingo du mankomunitatearen jaiotza, haren nortasun juridikoaren errekonozimendua eta hura Autonomia Erkidegoko toki-erakundearen erregistroan inskribitzeko betebeharra.

3.- Behin mankomunitate bat eratu ondoren, haren kide egingo ahal izango dira, beren borondatez, nahi duten udal guztiek, estatutuek zehazten duten prozedura betez. Edozein kasutan, beharrezkoa izango da atxikipena egin nahi duen udalak osoko bilkurako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz onestea mankomunitateko kideetza eta haren estatutuak, eta beharrezkoak izango dira, orobat, informazio publikoko tramitea eta foru-aldundien txostena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta toki-erakundearen erregistroan aldaketa inskribitzea, aurreko apartatuan ezarritako eran.

4.- Estatutuetan, gutxienez, ondorengo puntuak jaso beharko dira:

- a) Mankomunitatearen izena, egoitza eta osatzen duten udalen zerrenda.
- b) Zein helburu eta eskumen dituen.
- c) Gobernu- eta administrazio-organok zein diren, nortzuk osatzen dituzten, eta bertako kideak nola izendatu eta kenduko dituzten kargutik.
- d) Gobernu-organoen funtzionamendurako arauak, bai eta administrazioaren kudeaketakoak eta gerentziakoak ere, halakorik balego.
- e) Mankomunitatea osatzen duten udalen ekarpenak, eta erakundeak izango dituen gainerako baliabide ekonomikoak.
- f) Mankomunitateak izango duen iraupena.
- g) Estatutuak aldatzeko prozedura, lege honetan ezarritakoaren arabera.
- h) Udalak mankomunitatean sartzeko eta bertatik irteteko prozedura, eta, mankomunitatearen helburuetako bat edo batzuk betetze aldera, udal horiek elkarrekin sortzeko duten aukera.
- i) Mankomunitatea ezabatzeko kausak eta prozedura, eta likidazioari buruzko arauak.

j) Udalei aplikatu beharreko kalteordainen araubidea, mankomunitatearekin dituzten betebeharrak bete ezean.

k) Mankomunitateetik irteten diren udalek erabiltzeko lagatako ondasunik badute, ondasun horiek aurrerantzean izango duten araubide juridikoari buruzko aurreikuspenak.

l) Ahalak, hala dagokionean, jabetza kentzeko ahala barne.

5.– Mankomunitateek toki-araubidearen oinarritzko legeriak udalei esleitzen dizkien ahal berberak izango dituzte, betiere bakoitzak bere estatutuetan hala jaso badu. Halakorik jaso ezean, indarrean dagoen araudiak udalei aitortzen dizkieten eta beren helburuak betetzeko behar dituzten ahal guztiak baliatu ahal izango dituzte, ahal bakoitzari aplikatu beharreko legeriaren arabera.

6.– Mankomunitateek jabetza kentzeko ahala beren gain hartu ez duten kasuetan, okupatu beharreko ondasunak dauden lekuko udalak izango du ahal hori, beti mankomunitateak eskatuta eta haren mesederako; ondasun horiek lurralde historiko bereko udal bat baino gehiagotan badaude, foru-aldundiak izango du ahal hori; eta Autonomia Erkidegoko Administrazioak, lurralde historiko bateko baino gehiagotako udaletan badaude.

7.– Mankomunitateko gobernu-organok zein diren, zein eginkizun izango duten eta zer funtzionamendu-araubide jarraituko duten zehazteko orduan toki-erakundearen autonomia errespetatu behar bada ere, mankomunitatearen estatutuek bermatuko dute ordezkari-organok, duen osaeragatik, kontrol-lana egin ahal izatea eta ziurtatzea udal guztietako hautetsiak benetan egotea, baina udal batek ere gehiengo osoa izateko aukerarik izan gabe. Udalen ordezkari-organoko ordezkariak udal bakoitzak izendatuko ditu, azken udal-hauteskundeetan lortutako emaitzekin modu proportzionalean.

8.– Artikulu honetan araututako mankomunitateak desegiteko espedienteek, toki-araubidearen oinarritzko legerian ezarritakoarekin bat, mankomunitatea eratzeko eta bere estatutuak onartzeko eskatzen diren arau berberak bete beharko dituzte.

9.– Autonomia Erkidegoko udalek, toki-araubidearen oinarritzko legeriarekin bat, beste autonomia-erkidego batzuetakoak diren udalekin mankomunitateetan biltzeko aukera izango dute, lege honetan ezartzen den moduan eta, era berean, gai honi buruz beste autonomia-erkidegoko edo -erkidegoetako legerian erabakitakoarekin bat etorrira.

Halakoetan, artikulu honen hirugarren apartatuan aurreikusitako aurretiazko txostenaren ordeztu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren toki-araubidearen arloko organo eskudunak egindako txostena beharko da.

VII. Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan jasotakoaren arabera, "Dekretua Udaletan eta Udalen mankomunitateetan aplikatuko da", hauek izango direlarik printzipio gidari nagusiak:

- Tokiko hizkuntza-autonomia: udalei autonomia aitortzen zaie euskararen erabilera sustatzeko eta dinamizatzeko, bai eta beren hizkuntza-normalizazio instituzionala eta soziala lortzeko prozesua diseinatzeko ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, dekretu hau eta aplikatzeko den gainerako araudia ere betez. Horretan, kontuan hartu beharko dituzte autonomia-erkidegoko erakunde komunek ezarri dituzten irizpideak euskararen erabilera planifikatu eta arautzeko. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

udalei hizkuntzen kudeaketaren arloan aitortzen zaien autonomia oinarri hartuta, udalok hizkuntza-politika, ekintzak eta jarduna bideratuko dituzte, batetik, euskararen erabilera guztiz normalizatzerara eta, bestetik, erakundeen eta administrazioaren funtzionamendua progresiboki euskalduntzera.

- *Autoantolaketaren printzipioa: tokiko komunitate bakoitzak eskubidea dauka hizkuntza-arloaren gobernuan eta administrazioan parte hartzeko, bere gobernu-organoen bitartez. Bere eskumenen barruan, Euskadiko toki-entitate bakoitza edo Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duen entitate bakoitza arduratuko da hizkuntza-arloa kudeatzeaz.*

Era berean, aipatu Dekretuan jasotakoarekin bat, *“Udalek hizkuntza-arloan duten eskumen propioa baliatuko dute, bai barne-jardueretan bai kanpora begira egiten dituzten jardueretan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta dekretu honetan xedatutakoari jarraituz”.*

Hizkuntza-arloko udal-eskumen propioa legez bereganatzeak berekin dakar hizkuntzaren erabilera dinamizatzeke eta hizkuntza horren ikaskuntza sustatzeko neurriak hartzeko konpromisoa.

Hizkuntza-arloko udal-eskumen propioa: arauak emateko edo ordenatzeko, antolatzeke, programatzeko, sustatzeko, kudeatzeko edo betearazteke funtzioen edo ahalen bitartez egikaritzeko da.

Horretarako, Udalak bi eremu hauetan garatu beharko ditu bere eskumenak:

- *Ad intra: Udalek euskararen erabilera arautu eta sustatuko dute, eta euskararen normalizazioa planifikatuko dute beren eskumen-eremuko administrazio-organo, zerbitzu eta jardueretan. Hizkuntza-plangintzaren helburua izango da udal-jarduketak euskaraz egin ahal izatea. Horretarako, neurriak hartuko dira udalek euskaraz funtziona dezaten; bereziki, euskararen arnasguneetan.*
- *Ad extra eskumena: Udalek euskararen ezagutza sustatu eta haren erabilera dinamizatuko dute beren lurralde-eremuan egiten diren jardueretan. Euskararen erabilera sustatu eta dinamizatuko dute, herritarrei zuzendutako prestazioetan ez ezik, sustapen-ekintzetan ere. Horretarako, gizarte-jarduerak finantzatzen lagunduko dute, eta jarduera horietan euskara erabiltzea bultzatuko dute, jardueren xedeak eta ezaugarriak kontuan hartuta.*

Eta, besteak beste, Euskadiko toki-entitateek eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateek beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeaz gain, erabilera ere dinamizatuko dute, zuzenean horretarako zerbitzuak eta jarduerak antolatuz edota beste pertsona edo entitate batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeke egiten dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

VIII. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak Arautzen Dituen apirilaren 10eko, 6/2007 Foru Arauak hau xedatzen du:

10. artikulua. Atxiki eta banantzea.

1. Mankomunitatea eratu ondoren, beste udalerririk ere sar daitezke, estatutuetan erabakitakoa betez. Sar daitezke mankomunitatearen helburu guztietarako edo batzuetarako, alderdi tekniko edo finantzarioei begira zerbitzu edo obra horiek beren artean zerikusirik ez badute.

2. Era berean, estatutuan ezarritakoari jarraituz, mankomunitatetik atera daiteke hura osatzen duten udal erakundeetako edozein.

3. Udalerririk berriak mankomunitateari atxikitzea edo handik kideren bat banantzeak estatutuak aldatzeko ezarritako arauak betetzea ekarriko du ondorioz.

IX. Argudio hauek kontuan hartuta:

- Jasota geratu den araudiarekin bat, Udalaren eskumen propioa da **“Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera”**, eta hori baliatuko dute, bai barne-jardueretan bai kanpora begira egiten dituzten jardueretan.
- Hizkuntza-arloko udal-eskumen propioa legez bereganatzeak berekin dakar hizkuntzaren erabilera dinamizatzeko eta hizkuntza horren ikaskuntza sustatzeko neurriak hartzeko konpromisoa.
- Horretarako, Toki-erakundeek hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte, **mankomunitate**, partzuergo, elkarte eta **udalerririk gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu**, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin.
- Egiaztatu dela Asteasuko Udalak ez duela euskararen normalizazioa sustatu dezakeen euskara zerbitzu propioa, eta egokia dela UEMAK dituen giza- eta material-baliabideak erabiltzea zerbitzu hori emateko.
- Jasota geratu den araudiarekin bat, behin mankomunitate bat eratu ondoren, haren kide egingo ahal izango dira, beren borondatez, nahi duten udal guztiek, **estatutuek zehazten duten prozedura betez. Edozein kasutan, beharrezkoa izango da atxikipena egin nahi duen udalak OSOKO BILKURAKO kideen legeko kopuruaren gehiengo osoz onestea mankomunitateko kideak eta haren estatutuak, eta beharrezkoak izango dira, orobat, informazio publikoko tramitea eta foru-aldundien txostena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta toki-erakundearen erregistroan aldatzea inskribitzea.**



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

- UEMAREN estatutuek jasotzen dituzten baldintzei dagokionez (UEMATik kanpo dagoen udalerrri bat onartzeko baldintzak), eta Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 11. Artikuluak xedatutakoaren arabera, Asteasuko biztanlegoak %87,57ko euskaldun indizea dauka ([EUSTATEko datuen arabera](#)).
- Era berean, UEMAK eman duen proposamenaren arabera, Asteasuri dagokion hasierako diru sarrera 6.928,00€koa izango da, eta dirulaguntzak eskatzeko aukera egongo dela, GFAREN deialdian 2.000,00€ inguru lortuko direlarik.

Hori dela eta, Asteasuko Udalak 2023 urtetik aurrera bere aurrekontu orokorretan aipatu kopurua txertatu beharko du gastuen 4. Kapituluan (transferentzia arruntak).

Adierazi behar da Idazkaritzak UEMARI eskatu dizkiola azken hiru urteetako likidazioari buruzko eginiko kontuhartzaitzako txostena, eta 2021eko ekitaldia izan ezik, besteetan aurrekontuaren emaitza positiboa izan dela. 2021eko ekitaldian, berriz, aurrekontuaren emaitza negatiboa izan da (diruzaintza-gerakinarekin finantzatutakoa, obligazioak/gastuak altuagoak izan baitziren). Ildo horretatik, UEMAKO koordinatzailearen hitzetan, 2021eko urtea salbuespena izan da, eta covid-19ko galera ekonomikoei lotuta dagoela hori, izan ere, UEMAK partaide diren udalei ekarpenen %25eko kopurua itzultzea erabaki baitzuen.

X. Urriaren 10eko 2022/289 Alkatetza Dekretuaren bidez, hau ebatzi zen, besteak beste:

“LEHENENGOA. Jende aurrean jartzea Asteasuko Udala Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMAN) sartzeko proposamena eta UEMAREN estatutuak onartzeko proposamena.

Udal ordezkari hauek izango dira UEMAKO Batzar Nagusiko partaideak:

- *Lehen ordezkaria: Larraiz Alkorta Aizpurua.*
- *Bigarren ordezkaria: José Ramon Ayerza Sarasua.*

BIGARRENA. Espedientea jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea hilabete (1) batez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko, honako erabaki hau Udalaren web orrian, iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

HIRUGARRENA. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 103.3. artikuluan jasotako txostena eman dezan”.

Espedientea jende aurrean jarri da, hilabete (1) batez, bide hauetan argitaraturik, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzan:

- 2022/10/14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- Udaleko iragarki taulan 2022/10/17tik 2022/11/17arte (biak barne).

- Udaleko web atarian 2022/10/17tik 2022/11/17 (biak barne): horretan, UEMAko proposamena eta estatutuak, alkatetza dekretua eta GAOko iragarkia argitaratu dira.

Jende aurreko epean ez dira alegaziorik aurkeztu.

Era berean, 2022/10/10ean bidalitako idazkiaren bidez (irteera zbkia: 615) Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu zaio Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 103.3. artikuluan jasotako txostena eman dezan.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuak, 2022/10/27an aurkeztutako idatziaren bidez (sarrera zenbakia: 841), jakinarazi du ez dagokiola hari aurretiazko txostena ematea Asteasu udalerria UEMA n sartzeko prozeduran, izan ere, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 103.9 artikuluan xedatzen duenari jarraikiz, aurretiazko txosten hori Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazio Orokorrean toki araubidearen arloko organo eskumendunak eman behar baitu.

Gauzak horrela, 2022/10/28an bidalitako idazkiaren bidez (irteera zbkia: 652) Eusko Jurlaritzari eskatu zaio Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 103.9. artikuluan jasotako txostena eman dezan

Eusko Jurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, 2022/11/10ean eginiko jakinarazpenaren bidez, eskatutako lege-txostena igorri du, eta horrek ondorioztatu du aurkeztutako eskaria eta txosten horretan aipatutako araudia ikusita, aldeko txostena ematen diola Asteasu udalerria Udalerririk Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeari, Nafarroako Foru Erkidegoaren barne araudian ezarritakoari kalterik egin gabe.

Zentzu horretan, Nafarroako toki administrazioaren araubideari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak dio nahitaezkoa izango dela Nafarroako Foru Erkidegoaren aurretiazko baimena beste autonomia erkidego batzuetako udalerririk dauden mankomunitateei atxikitzeko.

Ikusirik Asteasuko Udaleko bitarteko Idazkari Kontu hartzaileak aurretik eginiko txosten-proposamena.

Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.b) idatz-zatiak ematen dituen ahalmenak erabiliz.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Iturbe, Otegui, Gómez).

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gauzak horrela, Udal osoko bilkurak, korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz,

ERABAKIA HARTU DU

LEHENENGOA. Onestea Asteasuko Udala Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko proposamena eta UEMAren estatutuak onartzeko proposamena.

Udal ordezkari hauek izango dira UEMAko Batzar Nagusiko partaideak:

- Lehen ordezkaria: Larraiz Alkorta Aizpurua.
- Bigarren ordezkaria: José Ramon Ayerza Sarasua.

Hori guztia baldintzatuta Nafarroako toki administrazioaren araubideari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak agindutako Nafarroako Foru Erkidegoaren aurretiazko baimena jasotzeari.

BIGARRENA. Ebazpen honen berri ematea interesdunei.

HIRUGARRENA. Alkate andrea Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko beharrezkoak diren izapideak egiteko eskuordetzea, eta hala badagokio, eman daitezkeen akatsak zuzentzeko.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko 20:15 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2022ko azaroaren 23an.

Alkate andrea

Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea